

Alkartasuna



Alkartasuna Fundazioaren aldizkaria | 2025eko aldizkaria | 78 zk.

Joxerra Bengoetxea Caballero, EHUko errektorea

**Gure betebeharra
herritarrei kontzientzia
kritikoa izateko tresnak
eskaintzea da**

non zer nork

3

Editoriala

Herri harrotasuna

Orgullo de país

4–9

Elkarriketa

Joxerramon Bengoetxea

EHUko errektorea

10–11

Erreportajea

Alkartasun Eguna 2025

12

Estatus Politiko berria

Eba Blanco de Angulo

13

Solasaldia

Nagore Etxebarriarteun Jauregibarria,

Mikel Izagirre Roitegi, Angel Coca Guergue

14–15

Analisia

Unai Fernández de Betoño

Alkartasuna

Alkartasuna Fundazioaren
aldizkaria

2025eko aldizkaria
Portuetxe bidea, 23 | Donostia
D.L./L.G. SS 714/88

Koordinatzailea

Hugo Uruñuela Nicolás

Erredakzioa

Mikel Oraá Díaz de Heredia

Maketazioa

Pictogram Diseinu & Komunikazioa

Herri harrotasuna Orgullo de país

Joxerra Bengoetxea Caballerok, EHUKo errektore berriak, aldizkariaren zenbaki hau irekitzen duen elkarrizketan adierazten du gure unibertsitate publikoak erreferente morala izan behar duela gizartearentzat, bere balioekin bat etorriz. Balio horiek demokraziaren eta giza eskubideen defentsa direla gaineratu du. Gureak ere badira. Beti egon gara indarkeria mota guztien aurka. Israelek bi urte eman ditu dozenaka mila zibil palestinar akatzen, emakumeak eta haurrak tartean, nazioarteko erakundeen (Europar Batasuna barne) permisibitatearekin. Bere buruzagiek genozidioaren 730 gau eta egunez espekulatu dute erreakzioarekin, Israelekin dituzten interes ekonomikoen aurrean belaunikatuta. Bazirudien zerbait aldatu zela nazioarte mailan, eta zorionez su-etena heldu zen. Alde batetik Trumpen su-etenak ez du Palestinaren auzia konpontzen, eta bestetik, astindua ez da bulegoetatik iritsi. Kaletik heldu da. Beste behin ere, euskal herritarrok erakutsi dugu gure aberria maite dezakegula aldi berean beste herrien eskubideak defendatuz. Mundu mailako eredu izan gara La Vuelta ziklistan genozidioaren salaketan, edo Global Sumud flotillaren bahiketaren aurkako mobilizazioetan. Edo halaber, San Mameseko Euskadi-Palestina hartuz. Abertzaletasuna besteen arazoak ezagututa indartsuago bihurtzen da. Internazionalista solidarioak izanik. Madril eta Parisko nazionalismo zentralista eta atzerakoia sekula ulertuko ez duen zerbait. Herri harrotasuna.

Joxerra Bengoetxea Caballero, el nuevo rector de la EHU, manifiesta en la entrevista que abre este número de la revista, que nuestra universidad pública ha de ser un referente moral para la sociedad en coherencia con sus valores. Añade que esos valores son la defensa de la democracia y de los derechos humanos. También son los nuestros. Siempre hemos estado en contra de todos los tipos de violencia. Israel ha pasado dos años exterminando decenas de miles de civiles palestinos inocentes con la permisividad de las instituciones internacionales, incluida la Unión Europea. Sus dirigentes han especulado 730 días de genocidio con la reacción, arrodillados ante los intereses económicos con Israel. Parecía que algo estaba cambiando en la comunidad internacional y afortunadamente llegó el alto el fuego. No obstante, el alto el fuego de Trump no soluciona la cuestión palestina, y desde luego, el basta ya no ha llegado de los despachos. Ha llegado de la calle. Una vez más, la ciudadanía vasca hemos demostrado que es posible amar tu patria defendiendo al mismo tiempo los derechos de otros pueblos. Hemos sido ejemplo mundial en la denuncia del genocidio en La Vuelta ciclista, o en las movilizaciones contra el secuestro de la flotilla Global Sumud. O acogiendo el Euskadi-Palestina de San Mamés. El nacionalismo vasco se hace más fuerte sintiendo los problemas de los demás. Con solidaridad internacionalista. Algo que jamás entenderá el nacionalismo centralista y reaccionario de Madrid y París. Orgullo de país.



2026–2028 plan estrategikoari begira unibertsitateko komunitate osoaren ekarpenak jasotzeko campusetatik entzuteko erronda hasi berri duzue. Egungo gizarte honetan agian gehiegi hitz egiten dugu eta gutxi entzun, baina batez ere jendeak entzuna izan nahi du kontuan hartua izateko. Ondo ez doazkien gauzak hobera

Hasteko, martxan dugun ekimena gainetik azalduko dut bere gaitasuna ulertzeko. Hala da, entzuteko erronda bat hasi dugu EHUKo kolektibo osoaren gogoetak, iradokizunak eta nola ez, baita ere kritikak jasotzeko. Bertan ikasleak, irakasleak, ikertzaileak, langileak... hau da, EHU osatzen dugun guztiok parte hartzera gonbidatuta gaude. Gure helburua da lantzen ari garen plan estrategikoa gu guztiona izatea, ahal den neurrian guztiok gure burua islatuta ikusiz. Argi genuen, aurrekoetan ez bezala, EHUtik erditu behar genuela plana, eta ez kanpoko eragile bati, edo kontsultari bati enkargua eman. Jakina, entzute-fasea amaitzean emaitzak komunitateari aurkezteko tartea zabalduko dugu. Gero, unibertsitatearen zuzendaritza organoetan erabakiak hartuko ditugu, eta hortik aurrera aska

tasun osoz, bakoitzak baloratuko du eta ikusiko du noraino inplikatzan den.

Talde errektore berrian parte-hartzeari garrantzi handia emanez hasi zarete. Zer baloratu zuen unibertsitate-komunitateak zure hautagaitzari botoa emateko?

Ba, nire ustez haize freskoa eta gauzak egiteko beste modu bat hain zuzen ere. Parte-hartzailea. Aldaketa gogoaz zegoen eta askok gure planea-menduekin identifikatuta sentitu dira antza.

Irakaskuntzaren kalitatezko nazioarteko sailkapenak oso garrantzitsuak dira erreferentzia gisa. Baina haratago, non dago gaur egun EHU? Zeintzuk dira bere ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta, batez ere, aukerak?

Horrelako sailkapenak ikerketan oinarritzen dira batez ere. Proiektuetan, edo, adibidez, Nobel sari-dunak badituzu gora egiten duzu. EHUk komunitate garrantzitsu eta indartsua dugu ikerkuntzan, eta mundu mailan oso emaitza onak lortzen ari da. Abangoardiako ikerketa-komunitate plurala dugu. Urriaren amaieran aurkeztu genuen HITZ katedra, Adimen Artifizialaren eta Lengoiaren Teknologiaren Estatuko lehena. Ekimen horrek mapan jartzen gaitu. Euskadi mapan jartzen du. Hala ere, aukerak sortzen ditugun arren, ez dut ukatuko etxerako lanak ere baditugula. Halako ahultasun bat dugu ezagutzak gizartera transferitzeko orduan. Eta noski, eskaintzen ditugun graduen %90 inguru elebidunak diren arren, oraindik ere gure hizkuntzaren, euskararen, normalizatorantz urratsak eman behar ditugu. Era berean, ez dut ahaztu nahi irakasleen barne-sustapena arindu behar dugula. Denbora gehiegi darama promozio prozesuak eta izatez Estatuko luzeena da. Ikusten duzuen bezala, lana badugu.

Lana aipatu berri duzunez, enpleguarekin lotuko dugu. Enplegu Sailburuordea izan zinen Eusko Jaurlaritzan orain dela 25 urte Sabin Intxaurragarekin. Lan prekarietatea batez ere gure gazteriak biziki sufritzen duen gertaera tamalgarria da. Zer erantzungo zenieke gaur egun lan egiteko, adibidez iturgintza ikastaro bat, bi master baino hobea dela dioten horiei?

Maila pertsonalean ez daukat ezer esateko, norberak aukeratzen duelako bere bizitzan zer egin nahi duen, baina lan prekarietateari aurre egiteak lehentasun soziala izan behar du. EHUk ere bai, ez baitakit jendeak ba ote dakien guri ere eragiten digula eta pairatzen dugula, ordezkio irakasleen soldata apaletan edo doktoregoak prestatzen dituzten baldintzetan. Edo lanpostu administratiboetan, edo, adibidez, atezain lankideetan. Eta beste alde oso garrantzitsu bat. Prekarietatearen erruz, arazo handiak ditugu zenbait arlotan irakasleak lortzeko. Ezin gara kanpoko soldatekin lehia-tu. Hezkuntzan hemen baino bi aldiz gehiago irabazten dute. Ditugun motorra bokazioa izatea zoragarria da, baina lan-baldintza justuekin batera joan behar du.

Hacer frente a la precariedad laboral ha de ser una prioridad social, también en la EHU. Tenemos grandes problemas para encontrar profesorado en determinados ámbitos

Itxuraz euskal gizartean ez dugu Estatuan bezainbesteko krispaziorik, baina badira kronifikatzen ari omen diren gaiak, hala nola etxebizitza eskuratzeko zailtasuna, eta mahai gainean badira hainbat eztabaida, adibideen artean segurtasun ereduak, immigrazioa edota larrialdi klimatikoaren ondorioak. Gure gizarteak zer osasun duela uste duzu? Ekosistema sozial jasagarria al da?

Adierazleek esaten digute handitzen ari dela herri-tarren arteko arrakala ekonomikoa. Eta hor atzean dago etxebizitza eskuratzearen arazoa ere. Ingurune horren aurrean, gizarte laguntzak, koltxoi sozial gisa ulertuta, DSBEa adibidez, oso garrantzitsuak dira. Hala ere, ez dute arazoa errotik konpontzen, hots, desberdintasuna. Hor unibertsitateak desberdintasunak arintzen dihardu. Aukerak sortzen dituen igogailu sozial moduko bat da. Gure irakasleen % 78k EHUtik pasatutako aita edo ama bat du hain zuzen ere.



La brecha económica entre la ciudadanía sigue creciendo y ahí detrás está también el problema de acceso a la vivienda. Las ayudas sociales entendidas como colchón social son adecuadas, pero no arreglan el problema de fondo: la desigualdad

Unibertsitatea herrien eragile mobilizatzailere bat izan da. Lehen lerroan eskubide zibilen defendatzaileak adibidez. Badirudi egun EHU oso irekia dagoela mundura. Palestinaren harira. Publikoki salatu duzue genozidioa, eta koherentziaz ia 250 milioi euroko proiektuei uko egin diezue Israelekin loturak direla eta. Instituzioen sinesgarritasuna koherentzian dago hain zuzen ere?

Hori da. Ez gara aurkeztu Israelen parte-hartzea duten proiektu batzuetara. Hau da, agian aukerak galdu ditugu, baina zuk aipatzen duzun dirutza ez. Eta arrazoa da, hain zuzen ere, koherenteak izan behar dugula gure balioekin. Unibertsitateak erreferente morala izan behar du. Herritarren zergak finantzatzen dizkigute, eta, beraz, balio etikoak itzuli behar dizkiegu lehenik. Ez da posible barrura

begira bakarrik erabiltzea. Ezin dugu humanismoa alde batera utzi. Horregatik, Israel Europako programen markoetatik ateratzeko beste estrategia bat lantzearen aldeko apustua egin dugu. Baina, gainera, Europar Batasunak berak esaten duena jarraitzen ari gara: demokrazia eta giza eskubideak defendatu behar direla. Zorionez nazioarteko proiektu asko eta onak ditugu.

La universidad ha de ser un referente moral para la sociedad en coherencia con sus valores. Los nuestros son la defensa de la democracia y de los derechos humanos, y por eso hemos renunciado a presentarnos en proyectos en los que participa Israel

Eskuin muturraren mundu mailako ofentsiba ere egitate bat da. Keinuz berriro hitz eginez, EHU izan zen X, Twitter zaharra alegia utzi zuen lehenengoetako bat, Elon Muskek sarea erosi ondoren. Unibertsitateak izan behar al du ideia estremisten aurrean gotorlekua? Hezkuntza ultraeskuinaren aurkako arma boteretsuena al da?

Dudarik gabe. Mundu akademikotik herritarrei tresnak eskaini behar dizkiegu, egia eta gezurra bereizi ahal izateko. Fake news, terraplanismo, negazionismo klimatiko eta abarrei ahalik eta arrazoi eta argudio teknikoekin aurre egiteko tresnak. Gure betebeharra gizartearen kontzientzia kritikoa erraztea eta sustatzea da.

Goazen teknologia berrietara. Hemen dugu Adimen Artifiziala, eta hau geratzeko etorri da. Eta gu guztiok sakon eragiteko gainera. Hor-taz, elkarrizketaren hasieran aipatu duzun, HiTZ Katedra jarri duzue abian. Batzuen ustez, adimen artifizialeko espezialistek izan ezik, ia lan guztiak pikutara bidaliko ditu adimen artifizialak. Mundua ezagutzen dugun bezala zeharo

Nuestra obligación académica es ofrecer a la ciudadanía herramientas para que tenga conciencia crítica. Que sepa distinguir la realidad entre tanta fake new. La educación es el arma más poderosa frente a la extrema derecha

aldatuko duela eta abian dela. Zure ustez hain iraultzailea izango da? Zer balio ematen diozu adimen artifizialari?

Ez nago ados egiten ari diren baieztapen batzuekin. Nire iritziz AAK ez ditu lan guztiak desagerraraziko, nahiz eta eraldaketa oso indartsuak ekarriko dituen. Giza adimena dago, eta ezingo du ordeztu. Sistemak "pentsa" dezan, gizaki batek programatu egin behar baitu. Abantaila asko ikusten ditut mehatxu batzuen gainetik. Gakoa da sakon ezagutzea AA zer den, nola funtzionatzen duen eta teknologia horrek nola eragin diezagukeen. Beste behin ere, irizpide osatua edukitzen. Itzulpenean, adibidez, ekarpen sinesgaitzak egin ditzake. Hori bai, zintzotasunez erabili behar den tresna da, eta erabiltzen dela onartu. Unibertsitaterako lan bat egitean, adibidez. Hortaz, baliteke guretik ebaluazio-ereduak aldatu behar izatea. Elur-jausi bati aurre egin ezin diogunez, gutxienez jakin behar dugu eskuen artean zer dugun.

No podemos parar la avalancha de la Inteligencia Artificial, pero sí debemos conocer exactamente qué tenemos entre manos para saber cómo nos afecta. No creo que vaya a suplantar todos los trabajos de los humanos



UPV-EHU, orain EHU da. Euskaraz zuzenean. Keinua da baina ziurrenik atzetik sakonagoa den planteamendua daukazue zuzendaritza taldean. Laster eskaintza akademiko erabat elebiduna duen unibertsitaterik izango ote dugu?

Izen ofiziala UPV-EHU izaten jarraitzen du, baina marka aldatu dugu, orain zuzenean EHU dena. Ikusgarritasuna eman nahi diogu EHUri, eta gainera, Chillida familiarekin hitz egin ondoren, logoa garbiago geratzen da. Bestalde, batzuetan Valentziako Unibertsitate Politeknikoarekin nahasmena sortzen zigun. Nolanahi ere, Euskararen normalizazioan eragile nagusietako bat izan nahi dugu, zalantzarik gabe. Gaur egun, eguneroko ia bizitza osoa gure hizkuntzan egin dezakegu EHUn. Hori oraintxe bertan ez da posible Osakidetzan eta Eusko Jaurlaritzan zalantzak ditut. Gure helburua guztiz elebidunak izatea da, eta hiru eledunak, ingelesa barne.

Zer paper jokatu behar du EHUK Euskal Herriaren nazio eraikuntzan?

Gure izenak esaten du ez da? Euskal Herriko Unibertsitatea. Herri bat, nazio bat garela normalizatzen lagunduko duen motorra izan nahi dugu. Nafarroako eta Iparraldeko ikasle asko ditugu gure artean. Baita diasporakoak ere. Hain zuzen ere, uda honetan Boisen izan gara, lankidetzak hitzarmenak lantzen. Eta hori da gure funtzioetako bat, batez ere gure kulturaren bidez harremanak izateko eta

loturak mantentzeko tresna izatea. Gure gizartea indartzeko gaude baina ez politikatik. Erakunde bezala ezin dugu eta ez dugu alderdien politikan sartu nahi. Herritarrek eraiki dezatela nahi duten gizartea euren autodeterminazioaren bidez.

Queremos ser el motor de la normalización del euskera y de normalizar que somos un país, una nación llamada Euskal Herria

Kurtso hasieran, Nekane Balluerka Lasa, Jose Angel Iribar Kortajarena eta Carlos Garaikoe-txea Urriza Lehendakaria omendu zenituzten. Lehendakariaren kasuan, urrezko domina ematearen azalpenean, "bere konpromisoak Lehendakari bezala dimititzera eraman zuela" zegoen. Egungo gizartean omenduak bezalako pertsona gehiagoren hutsunea sentitzen duzu? Beren balioak eta printzipioak beren bidezko interes pertsonalen gainetik jartzen dituzten pertsonak?

Hara, pertsona apartak dira hirurak. Benetako erreferenteak. Garaikoetxea Lehendakariaren kasuan miresgarria da bere ibilbide osoa. Garena izateko jarri zituen lehen haziak: EHU, hain zuzen. Bera



Ikusi hemen Carlos Garaikoetxearen Lehendakariaren esku-hartzea

bezala, bere gobernu osoa aparta izan zen ere, Etxenike, Uriarte, Mario Fernandez, eta nola ez, Sabin Intxaurre. Oso belaunaldi berezia izan zen hura. Lehendakariarengana itzuliz, duintasun ikaragarria erakutsi zuen. Bere alderdian behar zuen bultzada aurkitzen ez zuela ikusi zuenean, alde batera egin eta bere alderdia sortu zuen. Oso identifikatuta sentitzen naiz proiektu sozialdemokrata horrekin, herrien Europakoarekin, eta Nafarroarekin erabat konprometituta. Orain justizia egiten ari da herri honi egin dion ekarpen zabalarekin, eta omenaldiak jasotzen ari da Eusko Jaurlaritzatik, Pradales Lehendakariarekin, eta gure aldetik ba bere egundoko lana aitortuz Urrezko Domina eman diogu. Iribar kiroltasunaren irudia da. Amnistiarena, ikurrinarena, euskararena... Koloreez haragoko erreferentea. Begira, ni Realaren zalea naiz eta nire idoloa da herri hau eraikitzen lagundu duelako. Eta zer esan gure Nekeneri buruz. Motz geratuko nintzateke esaten dudan guztiarekin. Gure lehen errektore, ikerlari, euskaltzale, feminista. Beste erreferente moral bat guretzat. Zorionez herri honetan horrelako pertsona gehiago daude, baina hauek horietako hiru dira zalantzarik gabe.

Me siento identificado con el proyecto político que puso en marcha Garaikoetxea. Socialdemócrata, de la Europa de los pueblos, y volcado con Navarra

Espero dugu ibilbide luzea izango duzula EHUKo errektore gisa. Hala bedi, baina jar gaitzen zure agintaldiaren amaieran. Nola utzi nahiko zenuke EHU? Zein izango litzateke zu pozik joateko balantzea?

Sei urtera mugatuta dugu agintaldia eta, beraz, ezin dugu denbora horretatik aurrera jarraitu eta gauza ona iruditzen zait. Horrela beste talde gidari batzuei erreleboa eta aukera ematen baitiegu ideia berriekin sartzeko, eta gainera atseden hartu ahal izango dugu. Bada, EHUKo komunita-

te osoa eta gizartea gure unibertsitate publikoaz harro egotea nahiko nuke. Uste dut harro gaudela, baina alde askotan oraindik ez gara jabetzen zer suposatzen duen gure herriarentzat kalitatezko unibertsitatea izateak. Barrura begira ere esaten dut. Harrotasun hori irakaskuntza-eremu guztietan bikaintasun akademikoa lortzetik, pertsonak zaintzetik eta gure gizarteari ekarpen baliotsuak egitetik etorri behar da, eta horretan gaude buru belarri.



Alkartasun Eguna 2025

Gure Nortasuna



Irailaren 21ean Eusko Alkartasunak 2025eko Alkartasun Eguna ospatu zuen Laguardian, Araban. *Gure Nortasuna* izan zen alderdiaren egunerako aukeratu zen leloa.

Euskal nortasuna edo izaera, bere ezaugarri eta sinboloekin, da hain zuzen ere XXI. mendean euskal nazioa zutik mantentzen duena. Bi Estatu eta hiru errealitate administratibo ezberdinetan politikoki okupatuta eta zatituta jarraitzen duen herria. Horrela, alderdi independentistak bereziki airtortu eta omendu izan zuen Errioxako militantzia abertzalea, tradizionalki eskuin xumeenaren gortorlekua izan den lurraldea.

El programa del Alkartasun Eguna comenzó antes de mediodía con una actividad cultural, una visita guiada a la bodega Zintzo, entre los pies de la Sierra de Cantabria y el río Ebro. El centenar de personas que se acercaron a la instalación en los autobuses fletados por la organización, fueron recibidos por sus propietarios, la familia Martínez de Cañas. Tomás, Karlos y Josu se confirmaron como

los anfitriones perfectos. Tras recorrer la moderna infraestructura y responder amablemente a las preguntas de las y los participantes, la visita finalizó con una cata de los magníficos vinos producidos en Zintzo.

El día del partido continuó en el frontón viejo de la localidad riojana alavesa. Bajo una carpa que ocupaba el frontis y prácticamente todo el largo de la cancha, se desarrollaron los actos políticos centrales. El primer hito fue el coloquio *Gure Nortasuna* con el objetivo de conocer la realidad del día a día de la vida de la comarca, a través de sus vecinas y vecinos. Con la dirección de la secretaria general de Eusko Alkartasuna, Eba Blanco de Angulo, las tres personas invitadas fueron conversando sobre cuatro bloques temáticos principales: el mundo del vino, evidente tractor económico de la zona, y también del aceite, la situación de los servicios públicos, especialmente Osakidetza, la identidad vasca y sobre todo el euskera, y la acción política en el ayuntamiento de Laguardia. Nagore Etxebarriarte-un Jauregibarria, alma de la bodega Díaz de Olano,

Mikel Izagirre Roitegi propietario del trujal Erroiz de Lantziego, y Angel Coca Guergue, concejal de EH Bildu en Laguardia aterrizaron al público asistente la realidad económica social y política de esa comarca.

El segundo hito central fue el reconocimiento a todas las personas que durante décadas han mantenido vivas las señas de identidad vascas en Rioja Alavesa. En representación de todas ellas se homenajeó a dos personas referenciales. Por una parte, Loli Sarasua Ruíz de Gallo, alcaldesa de la Leza durante dos legislaturas, presidenta de la comunidad de regantes y activista precursora de debates polémicos como el Tratado de Libre Comercio y el fracking. Por otra, Teodoro Martínez de Cañas Martínez, también regidor de Leza, que, tras cuarenta años de dictadura franquista, alzó por primera vez la ikurriña en una localidad alavesa, la noche del 24 de julio de 1977.

Acabado el emotivo homenaje, el público tuvo tiempo para hacer el tradicional poteo por las calles de Laguardia. De vuelta al frontón para la comida popular, en la sobremesa tuvo lugar la intervención política de Gazte Abertzaleak, las juventudes de Eusko Alkartasuna. Su secretario general, Galder Agudo Bezi, tomó la palabra para hacer una lectura política de la situación actual desde su prisma particular. Así, destacó los problemas de la juventud vasca para acceder a una vivienda digna, la precariedad laboral, y la salud mental.

El portavoz de Gazte Abertzaleak ligó directamente las soluciones a las políticas de izquierdas y concretamente a la necesidad imperiosa de un nuevo estatus. Soberanía, además de un concepto político *“también es poder decidir que las y los trabajadores tengamos los mismos derechos laborales a ambos lados del Bidasoa sin tener que pasar por Madrid y París. Soberanía es poder fijar un salario mínimo interprofesional que se ajuste a nuestro coste diario de la vida. Soberanía es bienestar, y mientras tengamos que depender de los estados español y francés no habrá forma de garantizar plenamente una vida digna y justa para toda la ciudadanía vasca”*.

Tras su intervención, Agudo dio paso a las representaciones internacionales, que tuvieron la oportunidad de saludar y hacer una breve lectura política desde sus respectivos partidos. ERC a través de Norma Pujol i Farré. Compromís con Cesc Roig Oliver y Maria Jose Calabuig Vanyó, Carme Gomila Dominguez de Mes per Mallorca. Pilar Serra Rotger de Mes per Menorca, y Liena Palacios Rasal y Rafael Fleta Girón de Estau Aragones. Por parte de EH Bildu asistieron Sonia Jacinto García y Unai Urruzuno Urresti.


2025eko Alkartasun Egunaren programazioan Zintzo upeltegia bisita, Arabako Errioxako errealitatea ezagutzeko solasaldia, eskualdeko abertzaleei omenaldia eta Gazte Abertzaleak zein nazioarteko ordezkaritzen esku-hartzeak izan ziren



Ikusi hemen Loli Sarasua Ruiz de Gallo eta Teodoro Martínez de Cañas Martínez-eri egindako omenaldia

“En junio debemos tener un acuerdo mínimo para un nuevo estatus político o perderemos una ventana histórica de oportunidad”

Eba Blanco de Angulo, secretaria general de Eusko Alkartasuna



La necesidad de un nuevo estatus político está en el centro de la agenda vasca. Eusko Alkartasuna, a través de su secretaria general, Eba Blanco de Angulo, eleva el nivel de necesidad y pide al Lehendakari que anticipe el calendario del estatus.

“El calendario del nuevo estatus político que el lehendakari Pradales propuso en el Pleno de Política General de septiembre va tarde. No podemos estar con balances de los partidos en junio de 2026. Sin adelantar las elecciones, 2027 es nuestro horizonte. A partir de 2027 será imposible y perderíamos otra ventana histórica”, advierte. Para junio de 2026 tiene que haber un acuerdo mínimo entre los partidos democráticos para un nuevo estatus político. “Como es un proceso que el Lehendakari tiene que liderar como máximo responsable político de la CAV, le pedimos liderazgo para adelantar la hoja de ruta del nuevo estatus. Tiene toda nuestra colaboración incondicional para avanzar en ese camino”.

Hay que dejar atrás el actual marco político. Blanco pide para Euskadi el pleno ejercicio de las competencias previstas en el Estatuto de Gerni-

ka que el Estado ha incumplido durante 46 años. *“Pero, precisamente por esos 46 años sin cumplir, el Estatuto de Gernika ya no sirve para satisfacer las demandas sociales y políticas que tenemos la ciudadanía vasca”. Este país ha cambiado mucho desde 1979, y el actual modelo de relaciones con el Estado, un sistema fracasado, “no resuelve nuestros problemas cotidianos, como el acceso universal a una vivienda digna. Por lo tanto, no nos sirve de nada”. En esta última cuestión, profundiza la máxima dirigente del partido. “Ahora todavía nos responden desde Madrid que no nos van a transferir la gestión de los aeropuertos vascos. ¿Cuántos años más van a seguir vulnerando el Estatuto? Esta vía ha caducado. Es imprescindible aprovechar la ventana de oportunidad actual”.*

Precisamente, aprovechando el enorme agujero del Estado fallido, la extrema derecha de Ayuso y Abascal tiene posibilidades reales de gobernar España y en ese caso, *“nuestro autogobierno está en grave peligro”.* En palabras de Blanco, *“ahora es el momento de que el Estado reconozca la plurinacionalidad. Naciones sin estado como Euskal Herria, somos la mejor muralla de contención ante la extrema derecha”.*

Eskuin muturraren ofentsibaren aurrean ezin gara balantzak egiten aritu datorren udan, estatus berriaren egutegia aurreratzeko eskatzen diogu Lehendakariari



Ikusi hemen Eba Blanco de Anguloren adierazpenak

Gure Nortasuna solasaldiko zenbait gogoeta

Nagore Etxebarriarteun Jauregibarria

“Upategi txikiok esportatu egin behar dugu, baina Euskal Herria deitzen den merkatu handia dugu. Jendeak Errioxako ardo bat eskatu beha-



rrean arabar errioxako bat eskatuko balu, hobeto joango litzaiguke. Askotan atzerrian hemen baino baloratuago sentitzen gara. Upeltegi txiki baten atzean ez dago ardoa bakarrik. Familia bat dago, ondare bat, eskualde bat, baina batez ere kalitatea dago.

El vino es un mundo de hombres, pero al frente de las bodegas prácticamente hay paridad. Muchas de las que están continuando con la tradición familiar son mujeres”.

La política de aranceles de Trump nos ha hecho mucho daño al vino vasco, y ha convertido en competencia otros países no europeos exentos de pagar el 15%, pero también el cambio del euro al dólar, que encarece el producto

Angel Coca Guergue



“Hay comarcas que estamos olvidadas en muchos sentidos y se ve en unos servicios públicos deficientes. Por ejemplo, hace más de quince años que llevamos reclamando un centro médico en condiciones para Laguardia, o un servicio de mamografías en el

Hospital de Leza. No es de recibo que tengamos que ir a Gasteiz o a Logroño”.

Mikel Izagirre Roitegi

“Badira lurra landu nahi duten gazteak, baina bizitzeko irabaziek ez dute ematen eta etorkizunaren ziurgabetasuna oso handia da. Planteamendu harraparien aurrean




mendeetan zehar Arabako Errioxan bizitzeko aukera eman digun gure ustiapen txiki eta familiarren eredu defendatzeko unea da. Eredu hori haustea lortzen badute, despopulazioa eta hondamena egitate bat dira.

Euskaltasuna gertuagoa sentitzea ezinbestekoa

da eskualdeentzat. Hainbat gazte euskaldunek ez dute Euskal Herriko beste herriak ezagutzen. Erlazio hori landu behar da”.

Aunque es muy desconocido en comparación con el de otros orígenes, cuando salimos al Estado con el aceite vasco, nos sentimos muy bien atendidos. Producimos poco y por tanto no exportamos. Lo que queremos es consumir local lo que producimos local, ya que es de mucha calidad y todos ganamos

Etxebizitzaren arazoak badu konponbiderik: honaino ekarri gaituzten politikak iraultzean datza



© Argazkia: Jaizki Fontaneda

Etxebizitzaren arazoa, denek ez izatea etxe duin baterako sarbiderik, are gordinago bilakatu da azken boladan, etxe-prezioen eta soldaten igoeren arteko aldea nabarmen handitu delako. Sabai baten pean lo egiteko egin behar den esfortzu ekonomikoa inoiz baino handiagoa delako, gutxienez Hego Euskal Herrian. Zehazkiago, azken zazpi urteotan EAEko alokairuak % 27 igo dira prezioz, soldatak soilik % 17 igo direnean: maizterrak, gero eta gehiago direnak, % 10 txirotu dira. Ezin dute gehiago jarraitu alokairu librean eta horrexegatik loditu da hainbeste Etxebideren zerrenda: bakarrik azken urte eta erdian % 46 familia gehiago daude izena emanda EAEn alokairu sozialeko etxe bat lortzeko. Dagoeneko 85.000 familia. Egoera latza da askorentzat.

Nola iritsi gara honaino? Bereziki azken mende erdian etxebizitza salgai huts gisa ulertu eta etengabe birbalorizatu duen politika immobiliariora garatuz eta perfektionatuz. Mundu Bankuak ebanjelizatutako neoliberalismoak agindu zuen etxebizitza-parke publikoak pribatizatzea, eta Thatcher eta Mendebaldeko beste apostolu batzuek ondo baino hobeto burutu zuten mandamentua. Hego Euskal Herrian ez zen beharrezkoa izan: bertako parke publikoa automatikoki babesa galtzeko eta pribatizatzeke egin zuen frankismoak, helburu ideologikoekin. Arrese etxebizitza-ministro bilbotar falangistak argi utzi zuen ez zituztela nahi proletarioak, baizik eta propietarioak.

Jabe nahi gintuzten, ez jare. Baita lortu ere: 1960an Hego Euskal Herriko herritarren erdia alokairuan bizi zen, eta, soilik 20 urte ondoren, 1980an, bakarrik % 15.

Handik datozen inertziekin jarraitzen dugu. Hego Euskal Herrian gaur egun ofizialki ezarrita dagoen eskema ez da horren ezberdina: etxebizitza libreak sustatzen dira bereziki, babes publikoko etxe apur batzuk eginarazi, eta, arazo ekonomiko larriak dituztenei prestazio bat ematen zaie alokairu librea ordaintzen laguntzeko, burbuila are gehiago puztuz. Sustatzaileei eta bankuei ezin hobe datorkien politika immobiliariora horren emaitza da ez dagoela apenas etxebizitza sozialeko parkerik, ez dagoela prezioen igoerak kontrolatzeko benetako asmorik eta gazteek ezin dutela alde egin gurasoen etxetik 30 urte bete baino lehen.

Ipar Euskal Herriko gazteek bospasei urte lehenago uzten dute gurasoen etxea Hego Euskal Herrikoek baino. Datu horren atzean hainbat arrazoi egon daitezkeen arren, bada bat oso lotuta dagoena etxebizitza-politikarekin: Bidasoaren iparraldera dagoen alokairu soziala, Europako batez bestekoaren antzerakoa, parke osoaren % 11 da, lau aldiz handiagoa hegoaldera dagoena baino, % 2,5era ailegatzen ez dena.

Hortxe daukagu gure etxebizitza-eskaintza dibertsifikatzeko erronka, Europako estandarretara gerturatu behar gaituena: alokairu babestuko parkea datorren hamarkadan laukoiztu beharko genuke, beharra eta nahia duten herritar guztiei etxe-soluzio merke eta iraunkorra eskainiz, zeinetan ez duten ordaindu beharko haien soldaten % 30 baino gehiago.

Etxebizitza gehiago behar ditugu, bai, baina bi ñabardura garrantzitsurekin, neoliberalak egiten ez dituztenak: batetik, etxebizitza mota jakin bat da behar duguna, hots, etxebizitza merke eta iraunkorra, alokairu sozialekoa; eta, bestetik, behar ditugun etxebizitza asko jada eraikita daude, eta, beraz, horietako asko, ahal beste, alokairu sozialerako biltzea da zeregina. Gutxienez Administrazio Publikoena, interes orokorra bilatu behar dutena. Etxe bat merkatu librean erosteko edota alokatzeko dirua eta nahia duena, aurrera, noski, baina sistema publiko bat osatu behar dugu etxebizitzaren alorrean ere, bere garaian hezkuntzan eta osasunean egin bezala, bizi osoa hipotekatu gabe etxe duin bat eskura eduki ahal izateko denek.

Alokairu sozialeko parkea handitzeko hainbat neurri hartu beharko dira, aldi berean eta denbora luzez. Soilik batzuk hartuz gero kalterako ere suertatu daitezkeelako: pilulekin bezala, mina kendu ahal digutela baina urdailean beste min bat eragin. Etxebizitza-neurri batek prezioa ere igoaraz dezake soilik eskaintzan zentratzen bada, edo alderantziz.

Nola zabaldu alokairu sozialeko etxebizitza-parkea? Bada, batzuek diotenaren kontra, ez da baztertu behar zerbait gehiago eraiki behar izatea, bereziki zenbait tokitan. Baina argi utziz, hori bai, klima-larrialdi betean egonik, ezin dela "adreiluaren burbuilan" bezala barra-barra egin, lurzorua etenik gabe artifizializatu: modu doituagoan eta jada urbanizatutako zoruaren birdentsifikazioa lehenetsiz egin beharko da. Hori, jakina, beste zenbait neurriekin bateratu beharko da, jada eraikita dagoen etxe-parkea zukutze-ko, alokairu sozialeko parkea handituz: etxe hutsak mugiaraziz, etxe merkeak lehenetsunez erosiz edota pisu turistikoak zoru tertziariora eramanez, besteak beste.

Nola kontrolatu etxebizitzaren prezioa? Bereizki alokairuak mugatzeko sistema bat iraunkorki ezarriz, Mendebaldeko herri ugarian bezala, eta espekulazio urbanistiko eta finantzarioari aurre eginez. Alegia, etxebizitza ahalik eta gehien desmerkantilizatu.

Nola lortu maizterrek ziurtasun gehiagorik bizi ahal izatea? Alokairuak olatu neoliberalaren aurreko egoerara itzularaziz, Espainiako Estatuan 1985ean hasi zena PSOEn Boyer Dekretuarekin. Maizterrek bizitza-proiektu iraunkorrak garatu ahal izatea lortu behar dugu. Hain zuzen ere askatasunez aukeratu ahal izateko.

Etxebizitzaren arazoak badu konponbiderik. Honaino ekarri gaituzten politikak iraultzean datza. Etxe bat jabegoan dutenen eta ez dutenen arteko arrakala sozioekonomikoa gaindiezin bihurtu baino lehen. Berandu goaz.

Unai Fernandez de Betoño Saenz de Lacuesta

Arkitektoa eta EHUn irakaslea da. *"Etxearen korpiloa nola askatu: Etxebizitza-politika justurako gakoak"* liburua idatzi du Txalaparta argitaletxean

3

medidas para mejorar el problema del acceso a la vivienda

01


En contra de lo que algunos dicen, no se debería descartar que haya que construir más vivienda para ampliar el parque de viviendas de alquiler, pero debe ser en lugares muy concretos y sin artificializar el suelo de forma continua

02

En particular, mediante la implantación permanente de un sistema de limitación de alquileres se puede controlar el precio de las viviendas

03

Reintegrando los alquileres a la situación anterior a la ola neoliberal se puede conseguir un sistema de limitación para que los inquilinos puedan vivir con mayor seguridad





alkartasuna
fundazioa

alkartasunafundazioa.eus • info@alkartasunafundazioa.eus



@alkartasun



euskoalkartasuna.eus • info@euskoalkartasuna.eus



@ealkartasuna



@euskoalkartasuna

ARABA

San Frantzisko kalea, 22 • 01001 • GASTEIZ
Tel. 945 23 27 62
araba@euskoalkartasuna.eus

BIZKAIA

Areatza, 2-3 • 48005 • BILBAO
Tel. 94 416 10 33
bizkaia@euskoalkartasuna.eus

GIPUZKOA

Portuetxe Bidea, 23 • 20018 • DONOSTIA
Tel. 943 02 01 30
gipuzkoa@euskoalkartasuna.eus

NAFARROA

Plaza del Castillo, 49 - 1º • 31001 • IRUÑA
Tel. 948 22 06 91
nafarroa@euskoalkartasuna.eus

IPARRALDE

34 Rue Pannecau • 64100 • BAIONA
Tel. 05 59 25 50 98
iparralde@euskoalkartasuna.eus